

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
5 positibo berri	283 hildako	139 positibo berri	498 hildako
3.116 positibo guztira*	66 ospitalizatuta	7.891 positibo guztira	110 ospitalizatuta
Sendatuak EAEn: 15.256 Naf.: 3.400			

Bertsotan omenduko dituzte baserritarrak gaur, «beraien lana aitortu eta adoretzeko egunean»

Ohiko San Isidro eguna ospatzerik posible izan ez dela eta, bertso saioa antolatu dute Astigarragako Udalak eta Goldea Elkartek. «Baserritarrek egiten dituzten lanak goraiatu» nahi izan ditu Goldeak, egun seinalatuan.

URUMEA SAN ISIDRO JAIA

San Isidro eguna da gaur, baserritarren eguna. Eta ohitura den bezala, ospatzerik izango ez den arren, haiekin gogoratzeko deia luzatu du Astigarragako Goldea Elkartek, egun seinalatuan.

«San Isidro egunak herriaren izaeran duen garrantzia eta esanahia kontutan hartuta, goraiatu nahi ditugu gure baserritarrek baserriak zutik eta naturak bizirik irauteko egiten dituzten lanak eta ahaleginak», nabarmendu dute. Horregatik, eta aurten jaia ospatzea posible izango ez denez, «zenbait ekintza sinboliko» egingo dituzte, Astigarragako Udalarekin batera.

Eta horietako bat izango da, internet bidez eskainiko duten bertso saioa, Bertsozale Elkarrearen eskutik.

Zuzenean 'bertsoa.eus' atarian, gaur eguerdian

Bertsozale Billabonan daukan egoitzan egingo dute San Isidro-tako saioa, eguerdiko 12:00etan hasita; eta zuzenean emango dute interneten, bertsoa.eus web orrian. Ikusterik ez daukanak, gainera, gerora ere izango du aukera, ikusgai jarriko baitute, kronika.eus, astigarraga.eus eta bertsoa.eus atarietan, asteburuan zehar. Bost bertsolarik hartuko dute parte, gaurko saioan. Agin Laburu astigarrarra ariko da, batetik; bestetik, Astigarragako San Isidro egunean ohikoak diren bi bertsolari, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso; eta haiekin batera, Onintza Enbeita eta Nerea Elustondo.

Baina eguna ospatzeaz gain, «azken 30 urteotan herrian ba-

serriak izan duen eboluzioaren berri» eman nahi izan du Goldeak, «makina bat erreibindikazio ekintza» bideratu eta plazaratu baitituzte, herriko beste eragileekin batera.

139 baserri izatetik 20 baino gutxiagora, 40 urtetan

Goldeak nabarmendu du, 1982an 139 baserri zeudela Astigarragan; 1995ean 67 ziren, 2014an 44, eta gaur egun 20 baino gutxiago, nekazal jardueretatik bakarrik bizi direnak. «Zaila izan da bertako jarduerari eustea; eta errealitate gordin hori, goi mailako administrazioek eta gertuko beste batzuek lurraren plangintzaren inguruan hartutako erabakien eta sustapenerako borondatek ezaren ondorio izan da, hein handi batean».

Zentzu horretan, dio baserritarrek eta herri mugimenduko herritarrek hartu behar izan dutela «herri ekimenaren aitzurra, gure lurra goldetzeko eta baserriari bizia emateko». Hori horrela, 2008an proposatu zion Goldeak Udalari, Baserriaren Azterketa Sozioekonomikoa egitea; eta «buelta eta buruhauste askoren ondoren», 2014n egin zen, baita Baserri Mahaia sortu ere, Udalak, baserritarrek eta eragileekin osatuta. «2019ko abenduan jarri da berriro martxan, guttion ilusioz eta konpromisoz».

San Isidro egunaren antolaketan ere izan da bilakaerarik, Goldeak azaldu duenez: «1992an ekin genion festa berreskuratzeari; jarraian, baserrien erai-kin eta jarduerak ezagutzeari; ondoren, gure baserritarren testigantzak bildu eta omentzeari (azken 25 urteetan, 50 baserrita-



Aurten San Isidro eguna ospatzerik izango ez den arren, zenbait ekintza sinboliko egingo dituzte, baserritarren omenez.

rrek jaso dute aitortza) eta azken hiru urteotan, baserriko langintzak ahalbidetzeagatik familia osoei esker onak emateari».

Zentzu horretan, Goldeak nabarmendu du, Lizardi baserriko Irizar-Sagardogi familiari egin nahi diotela aurten, «merzitako aitortza». Baserrigintzak herri kirolekin duen lotura ere ekarri dute urtero, San Isidro egunera; eta Foru Plazako probalekuan, «urtean behin mugitzen den harriari tiraka» jarri dituzte idiak, azkeneko 28 urteotan bi, hiru eta lau idiko uztarrarian. Baita «marka esanguratsuak» ikusi ere.

Goldeak adierazi du, «San Isidro egun handia egiteko», guztiak behar direla: baserriak eta baserritarrak. «Herritarrok aitortu eta adoretu behar genuke beraien lana, bertako produktuez gozatu, baserriko lana baldintza egokietan egitea ahalbidetzen lagundu eta baserritarrak entzuten ditugula erakutsi. Hori eginez sentiaraziko ditugu baserritarrak protagonista eta elkarrekin egingo dugu gure lurraren eta baserriaren alde». K



139 baserri izatetik, 20 baino gutxiagora pasa dira 40 urtetan.

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

GEZATUTAKO PIL-PIL ZATIAK 700GR
GEZATUTA BAKAILO XEHETUA 400 GR

BAKAILOA ETXEAN

ETXEAN SUKALDATZEKO PREST

25€

ESKAERAK
639 474 554
656 750 745

LIZARTZA BAKAILOAK
ANTZOLA 48
HERNANI

95 urte

Zorionak aitona Marcelino!

Zure etxearen partez

GAUR Udazken itxura izango du gaurko egunak, zerua erabat estalita egongo da eta euria ugariago eta sarriago egingo du. Tenperatura maximoak beste kokxa bat jaitsoko dira. **Min.11° / Max.14°**

BIHAR Bihar giro freskoarekin eta euriarekin jarraituko dugu. Zerua oso hodeitsu egongo da eta euria egingo du. Iparraldeko haizea ibiliko da, eta tenperaturak ez dira aldatuko. **Min.11° / Max.15°**

ARGITARATZAILA **DOBERA EUSKARA ELKARTEA** LAGUNTZAILAK **Hernaniko Udala** **Astigarragako Udala** **Dobera Euskara Elkarte** **GOZUTAKO UDALA** **ARANOKO UDALA**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

'Hitzen distira'ko pasarte baten interpretazioa, Miren Gojenolak

Hernaniko Udalak, kultur programazio berezi bat antolatu du, konfinamendu egoeran ere herritarrek kulturaz gozatzeko aukera izan dezaten.

HERNANI KULTUR PROGRAMAZIOA

Covid-19ak eragindako alarma egoera honen aurrean, kultur ekitaldirik ezin da egin Biterin. Hori horrela, Hernaniko Udalak, kultur programazio berezi bat antolatu du, maiatza eta ekaina bitartean egiteko, «kultura hernaniarren etxeetara eramango dugu» azpimarratu du udalak.

Izan ere, kultur emanaldiak online ere eskaini daitezke, eta gaurkoan, Miren Gojenola aktoreak, Karmele Jaioren *Hitzen distira* testuko pasarte baten interpretazioa eskainiko du, arratsaldeko 19:30etan.



Miren Gojenolak 'Hitzen distira' testuko pasarte bat interpretatuko du.

Bi modu daude ikusteko, alde batetik Hernaniko Udalaren youtube kanalean: <https://labur.eus/X4K70> eta beste alde batetik, Hernaniko Udalaren webgunetik: <https://labur.eus/X4K70>.

Datozen maiatzerako azken asteetarako ere antolatu dira kultur ekintzak. Hilaren 20an, adibidez, ipuin ordua es-

kainiko du Apaxik arratsaldeko 18:00etan, eta hilaren 22an, Bideo-dantza ikusteko aukera egongo da, Arantza Iglesias eta Jokin Labaien eskutik, arratsaldeko 19:30etan.

Hileko azken astean, bi emanaldi egongo dira, poesia Morauk eginda eta musika, Xabi Solanoren eskutik. **K**

Herritarren Harrerarako Zerbitzua, gaur irekiko da berriro

Gaur irekiko da Herritarren Harrerarako Zerbitzua eta aurrez aurreko arreta berreskuratuko da baina hainbat neurri hartu ditu Udalak, segurtasuna bermatzeko.

HERNANI UDALA

Gaur irekiko da berriro Herritarren Harrerarako Zerbitzua, izan ere Covid-19ak sortutako egoeraren ondorioz, bi hilabete egon da itxita.

Aurrez aurreko arreta berreskuratuko da, baina baldintza zehatz batzuetan; alde batetik, «aurretiko hitzordua duten herritarrek atendituko dira», eta bigarrenik, «banaka sartu behar dute herritarrek». Ordutegiari dagokionez, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00ak arte egongo da bulegoa irekita. Udalak gomendatu du, «telefonoz, posta elektronikoz, eta modu telematikoa egin daitezkeen tramiteak bide horietatik egitea», azkenean bulegoa irekita egongo da, baina modu telematikoa egin daitezkeen tramiteak ere bideratzen jarrai-

tuko du Udalak.

Alarma egoera arintzeko, 1. fasearen barruan sartuta gaudela, «HHZren bulegoa irekitzea erabaki dugu, baina zerbitzuak muga batzuk izango ditu, udal langileen zein herritarren segurtasuna bermatze aldera».

Hainbat baldintza aipagarri

Udalaren arabera, «soilik hartuko dituzte aurretik hitzordua duten herritarrek». Eta hitzordua hartzeko edo beste tramite zein kontsultak egiteko, 943 33 70 00 telefonora deitu behar da.

Behin hona deituta, zein tramite egin nahi den azaldu behar du herritarrek, «ahal diren tramite gehienak internetez edo telematikoki egitea lehenetsiko da, baina ezin denean, hitzordua emango zaio herritarri».

Hitzordua duenak, kanpoal-

dean itxaron beharko du bere txanda izan arte. Gainera herritarrek banaka sartuko dira. Eta laguntzailea behar den kasuetan, bi pertsonak sartu ahal izango dute. Udalak aipatu du «egin beharreko tramiteetan pertsona batek baino gehiagok parte hartu beharko balu, bulego txandaka» sartuko direla.

Maskara eta boligrafoak, etxetik

Bulegoaren barruan, egongo diren langileen mahaietan, «manpara bat dago, langileen eta herritarren segurtasuna bermatzeko xedez». Sarreran eskuak garbitzeko hidrogela egongo da, eta baita barruko mahaietan ere. Sarreran beraz, eskuak garbitzea eskatzen du udalak, eta horrez gain, gaineratu du «mesedez, maskara eta boligrafoa etxetik ekar dezatela, kutsatzeko arriskua murrizteko asmoz».

HHZko beste langile batzuk, etxetik ariko dira lanean, eta orain arte bezala, telefonoz, eta postaz atendituko dituzte herritarrek. **K**

Formakuntza saioak, asteartetik aurrera

Astigarragako Aztifemiek, formakuntza saioak antolatu ditu, Harago Aholkularitza eta Astigarragako Udalaren laguntzaz.

ASTIGARRAGA AZTIFEMIAK

Astigarragako Aztifemiek talde feministak, formakuntza saioak antolatu ditu, Harago Aholkularitzaren eskutik, eta Astigarragako Udalaren babesarekin.

Saioen helburuak

Antolatutako saio hauek hainbat helburu dituzte, hala nola, komunikazio gaitasuna trebatzea, norbere plazan kokatzetik abiatuta, norbere izatearekin loturiko estiloa identifikatu, auto-ezagutza sakondu eta balio bereziak azalaraziz, eta komu-

nikazio jarduerak ahalduzkoak bidea izan dadin bitartekoak identifikatu eta praktikatzeko.

Saio hauek, «eraginkortasunez eta konfiantzaz komunikatu nahi duten emakumei» zuzenduta doaz, «bizitzaren eremu ezberdinei begira komunikazioa bere helburu eta desioen zerbitzura jarri nahi dutenak».

Saioak, noiz eta nola

Saioak, asteartean hasiko dira, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, bi ordukoak izanik. Eta datozen saioak, hilaren 19 eta 26an izango dira. Ekainean beste hiru saio ere eskainiko dira, 2, 9 eta 26ean, hain zuzen.

Zoom plataforma bidez eskainiko dira formakuntza saio hauek, eta Aztifemiek jakinarazi dute «interesa baldin baduzu animatu». Izena eman behar da parte hartzeko, izan ere, plaza mugatuak daude, beraz apuntatu nahi izanez gero aztifemiek@gmail.com helbidera idatzi. **K**

Zuzeneko elkarrizketa eta eskulanak gaur, Gaztelekuan

ASTIGARRAGA HERNANI GAZTELEKUA

Gaur ere entretenitzeko ekintzak antolatu dituzte, Hernaniko zein Astigarragako Gaztelekuek. Izan ere, Hernaniko Gaztelekuek, arratsaldeko 17:30etan, zuzeneko eskainiko du, eta Egoitz Arbiol Albeniz izango da gonbidatua, *Hiruki larroxa* kolektiboko kidea. Eta bihar berriz, edari energetikoen gaia azaleratuko dute berriro Hernaniko Gaztelekuan, gazteei kontsumo ohiturei buruz galde-tuz. Astigarragan berriz, gaurkoan, *Gazteskulanak* egingo dira, eta bihar, *Gaztetxef* antolatu da, «zuek bidali eta guk egingo».

Astigarragako kirol ikastaroetako tasen erreklamazioak egiteko epeak

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako kirol ikastaroetako tasak aztertzeko eta erreklamazioak egiteko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, 30 eguneko epean, aurkez daitezke.

Haurreskolako matrikulazio epea, atzeratuta

HERNANI HAURRESKOLA

Covid-19k eragindako egoera dela eta, haurreskolan matrikulazio epea atzeratu egin da. Haurreskolakoekin jakinarazi dute, noiz zabalduko den jakin bezain laster, aditzera emango dutela. Edozein zalantza argitzeko, idatzi hernani.hernani@haurreskolak.eus helbide elektronikora.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**